

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Enpresa bat aurrera eramateko ezinbestekoak dira bezeroak, horregatik atal honetan bezeroekin edukiko dugun harremana eta komunikazioa azalduko dugu. Gure enpresarentzako bezeroak eta haien iritziak oso garrantzitsua dira; horregatik ikastola bakoitzari inkesta bat pasako diegu tailerra egin ondoren. Horrela, gure tailerra hobetzeko dituzten iritziak, kexak, proposamenak... jakinaraziko dizkigute.


Gurekin lan egiten jarraitzen duten ikastolei deskontuak eta abantaila bereziak eskainiko dizkiegu, gure tailerrarekiko konfiantza mantentzeko eta gure zerbitzua ahaztu ez dezaten.

Noizean behin, ikastoletako zuzendariekin bilera informatikoak antolatzea ere komenigarritzat jotzen dugu, gure proiektuak eragin positiboa duen eta aldaketak edo hobekuntzak behar dituen ikusteko. Saio horiek ikastoletan tailerrak amaitu ondoren egingo dira.



Gure harremana pertsonalizatua izango da, izan ere, ikastoletako zuzendariekin kontaktuan jartzeko telefonoz hitz egin behar dugu, ondoren tailerrak emateko gu ikastoletan egongo gara, hau da, aurrez aurre. Gure ustez oso garrantzitsua da tailerrak aurrez aurre ematea, konfiantza, gertutasuna eta segurtasuna eman dezakegulako. Aurrez aurreko harremanari esker, ikasleen erritmora egokitu gaitezke, zalantzak berehala argitu ditzakegu eta giro atseginagoa eta erosogoa sor dezakegu.

Jarraituz, prest gaude gurasoren batek edo senide batek parte hartzea. Hau da, adibidez, familiako norbaitek postre berezi bat erakutsi nahi badigu asko gustatuko litzaiguke, asko lagunduko ligukeelako eta oso giro polita sortuko genukeelako.



Gure bezeroekin euskaraz hitz egingo dugu hasieratik, ikastoletan tailerrak emango baititugu eta euskaraz hitz egin behar dugula kontzientziatuta gaude. Egia da kanpotarra edo euskaraz ez dakien ikasle bat egongo balitz, gaztelaniaz hitz egingo geniokela.

Esan dugun guztiarekin, gure helburu batzuk bezeroak gustura geratzea, ondo pasatzea eta guregan konfiantza izatea dira. Dena ondo doala ikusten badugu, gustatuko litzaiguke gure tailerrak Euskal Herriko ikastola gehiagotan eskaintzea. Horretarako, oso garrantzitsua da bezeroekin harreman ona izatea, izan ere, horrek lagunduko digu gure proiektua zabaltzen eta ikasle gehiagorengana iristen.